

«Sexualitaterako eskubidea dugu»

Adimen urritasuna duten hainbat pertsonak bizitza sexual duinaren aldeko idatzia plazaratu dute

Andoni Etxeberria Bilbo

«Gizarteak uste du ez dugula sexualki deus sentitzen, baina erabat erratuta dago. Sexualitaterako eskubidea daukagu». Beste askoren artean, ideia hori entzun zen atzo Elbarrien Nazioarteko Egunaren harira, Bilboko Euskalduna Jauregian egindako topaketetan. FEVAS Adimen Urritasuna duten Pertsonen Aldeko Elkartearen Euskal Federazioak, egun seinalatua aukeratu zuen *Sexualitatea eta urritasuna* dokumentu berritzailea gizarteratzeko. Manifestuaren bidez, adimen urritasuna duten 100 pertsonak bildutako hausnarketak eta eskaerak zabaldu nahi izan dituzte. Euren helburua da «pertsona moduan duten duintasuna eta arlo afektibo sexualean dituzten eskubideak bermaturik ikustea».

Ekintzaileen izenean, urte luzez euren iritzia isilduak izan direla salatuz, dokumentuaren 20 puntuak irakurri zituzten banan-banan Marino Ruiz de Alegriak, Belen Peña, Rafael Villasantek eta Carlos Alonsok. Dokumentuaren eskabide nagusiak hurrengoak dira: batetik, «sexualki garatzeko duten eskubidea» nabarmendu dute. Herritar hauek adierazi nahi dute «ezberdinak izan arren, gainontzeko pertsonen sentimendu eta eskubide berberak» dituztela. Horiek garatzeko, baina, «heziketara sexual egoia» eskatzen dute, ez baitie inork «sexuaz hitz egiten».

Bestalde, salatzen dute emakume urrituek gizonez aldea «dis-

kriminazio handiagoa» jasaten dutela. Era berean bildu dituzte «euren bizitza sexuala garatzeko intimitatea, eta, ezkontzea erabakiz gero, seme-alabak izateko eskubidea».

«Haiek erabaki dezaten»

«Ekimenaren helburu nagusia pertsona urrituak eurak zuzenean mintzatzen hastea da, bai sexuaz, bai bizitzako gainerako arloez», adierazi du Nacho Lozak APDEMAko zuzendariak. APDEMA Adimen Urritasuna duten Pertsonen Aldeko Arabako Elkarteak da. «Dokumentu hau aldarririk bat da, bai gizaratearekiko eta bai gure erakundearekiko. Berraz-



«Inork ez diegu sexuaz hitz egiten, eta gero pauso okerrak emateagatik kritikatzeko ditugu»

PORFIRIO HERNANDEZ
Psikiatra

«Pertsona ezinduei lagundu nahi diegu, zuzenean mintzatzen has daitezten»

NACHO LOZA
APDEMAko Zuzendari

guntza handiagoa eskaini behar zaio kolektibo honi, euren hausnarketak plazaratu dituzten, «gizarteak uste baino sen askoz hobe bat dutelako».

Porfirio Hernandez Gorabide Adimen Urrituen Laguntzarako Bizkaiko Elkarteak psikiatraren ustez, jendeak oraindik ere ikasi behar du adimenez urri direnekin tratatzen: «Urritasunak tabu bat da oraindik ere». Haren ustez, tabu horri sexuaren tabua gehitzean, egoera oraindik gehiago okertzen da. Alabaina, «oso pozik» agertu da dokumentuarekin. Arrazoiak eman die adimen urritasuna dutenei: «Inork ez diegu sexuaz hitz egiten, eta gero kritika-

tu egiten ditugu pauso okerrak ematen dituztelako».

Senideak

German Etxebarriaren eta Mari Carmen Diezen ustez ere, «oso garrantzitsua» zen atzoko ekitaldia. Etxebarriak down sindromedun anaia dauka, eta hark ere uste du bere anaia moduko kasuetan «inoiz jorratzen ez den gaia» dela «sexualitatea». Diezen iritziz, hori horrela izan da, familietan «beldur handia» dagoelako sexuaz aritzeko. Hala ere, etorkizunari begira baikor agertu da: «Belaunaldi berriekin aldatuko dira jokaerak, bikote gazteek ikuspegi modernoagoa izango baitute».

Irudia > Bilbo



ESKUBIDEAK ALDARRI HARTUTA

Ezintasunak dituzten pertsonen nazioarteko egunaren harira, Bizkaiko Gutxitu Fisikoen Koordinakundeak (Fekoor) bere sorreraren 30. urteurrena ospatu zuen, atzo. *Gure eskubideak ez daude krisian* lelopean elkarretaratzeari egin zuten Bilboko

Areatzan, gutxitu fisikoen eskubideak aldarrikatzeko. Fekoor 2009 Sariak ere banatu zituzten. Hiru hamarkadotan Fekoor-en proiektuaren alde aritutako boluntarioei omenaldia egin zion Koordinakundeak. JON HERNANDEZ / ARGAZKI PRESS

Elbarritasunen bat dutenen erretiro adina aurreratuko du Madrilek

Agantziak Madrid

Espainiako ministroen kontseiluak elbarritasunen bat duten pertsonen erretiro adina aurreratzeari onartuko du gaur. Hala iragarri zuen, atzo, Espainiako Gobernuko presidentea Jose Luis Rodríguez Zapaterok.

Elbarritasuna duten pertsonen lanean ari diren elkarretarako ordezkariekin bildu zen atzo Zapatero, eta hor aurreratu zuen neurria. «Ezohiko neurria da. Baina erabat justifikatua dago. Izan ere, halako pertsonen behar baino ahalegin handiagoa egin behar izaten dute lanak aurrera ateratzeko», adierazi zuen Zapaterok.

AGENDA

libre!

munduan libre bizi ahal izateko Egunkaria libre munduan bizi ahal izateko

Egunkaria
libre!
www.egunkaria.info

◆ Ostirala 4

- 19:30etan Seguran, plazan, Egunkariaren aldeko jaialdia. Bertan Txema Auzmendik hitz egingo du

◆ Igandea 6

- 12:00etatik 12:15era Durangon, azokaren ondoko plazan elkarretaratzeari

◆ Astelehena 7

- 12:00etatik 14:00etara Orion, plazan txistorra eta sagardo dastaketa